

Denbora-





1 Hitz zuzenaren bila

Azken idazlanean gaizki idatzi ditu hitz horiek Peruk. **Asmatuko al duzu nola idazten diren?**

2 Aurkitu irudian

Irristailu ugari banatu zituen Olentzerok Gabonetan. Hiru irristailu bi aldiz azaltzen dira. **Asmatzen al duzu zein diren?**



3 Sagu Jakintsua


AEBetako hauteskundeak izan dituzte mintzagai albistegi, irratsaio eta egunkari guztietan. **Lotuko al duzu estatu bakoitza bere hiriburuarekin?**

-pasak

1	borrokalari	a	iagetzame
2	emaztegai	b	irragragen
3	kontzertu	c	iralakorrob
4	abesti	d	atekzrohe
5	negargarri	e	utreztnok
6	ehorzketak	f	itseba

4 Hitzak atzekoz aurrera




Mezu sekretuak idazteko, hitzak atzekoz aurrera idazten ikasi du Jonak. Nola idazten dira ezkerreko hitzak?



Erantzunak: 1.-Erreinu, hozkada, aingura, edalontzi eta urtezahar.
3.-Texas-Austin, Kalifornia-Sacramento, Idaho-Boise eta New York-Albany. 4.-1-C, 2-A, 3-E, 4-F, 5-B eta 6-D

5 Zazpi aldeak

Bidaia luzeak egiten ditu motor gainean Xantiren osabak, eta haren marrazkia egin du Xantik. Zazpi aldaketa egin dizkiogu marrazkiari.



Arrainak ez dira uretan bakarrik arrantzatzen. Joko honetako arrainak, bederen, hondarraren azpian daude. Ea zer moduzko arrantzaleak zareten!

Arrantza egitera!

- 1 Jolasean hasi aurretik, jokoaren eremua mugatu eta materiala lortu behar da. Eremuak ez du oso handia izan behar. Egurrezko edo plastikozko arraintxoak eta kanaberak behar ditugu jolaserako. Arrainek uztai bat izango dute buruan. Makila bat, hari zati bat eta kako txiki bat behar ditugu, kanaberak egiteko.
- 2 Hondarraren azpian lurperatu

- edo ezkutatu behar ditugu arrainak. Arrainen uztaiak hondarretik kanpora geratu behar dute.
- 3 Jokalariak jokoaren eremuaren ertzean jarriko dira. Kanabera bana izango du bakoitzak.
- 4 Jolasean hasteko seinalea aditu orduko, ahalik eta arrain gehien arrantzatzen saiatuko dira jokalariak.
- 5 Arrain gehien harrapatu duen jokalaria izango da arrantzale finena.